
ARRASATEKO ERRALDOI ETA KILIKIEN KONPARTSAREN FUNTZIONAMENDUAREN ARAUTEGIA

Udalbatzarrak 1991.10.11ean onartua
1991.10.29ko GAOean argitaratua

SARRERA

1985eko otsailaren 8ko Udal Batzorde Iraunkorraren akordioa dela medio, pertsona talde batek landutako ideia bereganatuz Arrasateko Udalak Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren sorkuntza onartu zuen, elementu kultural, herrikoi eta bertakotzat hartu bait zuen. Proiektu horrek Udalaren jabetzakoak diren lau erraldoik, sei kilikik eta bi zaldikok osatutako konpartsa eredu du, gure udalerriarekin lotura historikoa duenez eta xedea kaleak animatzea denez, jaien giro herrikoia indartu eta haurren irudimena eta fantasiaren elementu suspertzailea izanik.

Lau erraldoik honako hauek ordezkatzten dituzte: Martin Bañez de Artazubiaga, Elvira Sancha Otxoa de Ozaeta y Marzana, Gómez González de Butrón eta Elvira de Leiba.

Sei kilikiek honakoak ordezkatzten dituzte: Indianoa, Pirata, Pirata Urdina, Olagizona, Artzaia eta Inkisidorea.

1. Artikulua.

Arautegi honen xedea Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsaren funtzionamendua erregulatzea da.

2. Artikulua.

28 pertsonaren lankidetzari esker funtzionatzen du Konpartsak. Talde horretako osatzaileak honelaxe daude banatuta: 12 erraldoi eramale (arraldoi bakoitzeko 3), 6 kiliki eramale, 2 zaldiko eramale, 2 talde, gaitero bandak eta ekitaldien antolakuntzan laguntzen duten 2 pertsona. Aipatutakoez gain, taldearen ordezkaria eta Udalaren aurrean Konpartsaren elementuen zaintza eta mantenimendua eta taldearen ekitaldi eta iharduera guztien arduraduna izango den beste pertsona bat egongo da.

3. Artikulua.

Konpartsaren osatzaileak uniformaturik ihardungo dira ekitaldietan. Honako hau izango da uniformea: praka luze zuria, alkandora edo niki zuria, gerriko morea, kirol zapatilak eta txapela.

4. Artikulua.

Konpartsa Udalak erabakitzen dituen egunetan ihardungo da udalerrian. Irteera finko gisa San Juanak, Santamasak eta Haratuzteak ezarri dira.

Gainerako ekitaldietarako Udalaren baimena beharko da, berorrek baimena eman aurretik taldearen ordezkariarekin hitzegingo duelarik.

5. Artikulua.

Udalak Konpartsaren ordezkari goren moduan ihardungo den zinegotzia izendatuko du.

6. Artikulua.

Konpartsaren osatzaileak borondatezko lankidetzaren konpentsazio gisa, Udalak 2.500 pta ordainduko du pertsona eta irteera bakoitzeko. Kopuru hori taldearen arduradunari ordainduko dio, taldearen osatzaileen artean banatuko duelarik. Gainera ere, udal biltegitik ekitaldi tokira egin beharreko desplazamenduek sortzen dituzten gastuak ordainduko dira, beti ere herritik kanpoko ekitaldiak ez badira. Aipatu kopuruak urtero berrikusi ahal izango dira, KPIren gehikuntzaren arauera.

Konpartsak herritik kanpo eskeintzen dituen ekitaldiak entitate edo erakunde interesatuak ordainduko ditu osorik, horri buruzko akordio espresua izan ezik.

7. Artikulua.

Udalak honakoak hitzartuko ditu aseguru konpainia batekin: Konpartsaren elementuei eragiten dieten kalteak estaltzen dituen poliza bat, hirugarrenei sor dakizkiekeen kalteak estaltzen dituen erantzunkizun zibileko poliza bat, eta funtzionamenduaren ondorioz, herriko zein herritik kanpoko ekitaldietan, Konpartsaren osatzaileei sor dakizkiekeen kalteak estaltzen dituen istripu aseguru bat.

8. Artikulua.

Konpartsaren arduradunak Konpartsaren iharduerei buruzko urteko txostena egingo dio Udalari, eta urte bakoitzaren hasieran Konpartsaren ekitaldi plan bat aurkeztuko du Udalak onar dezan.

9. Artikulua.

Udalak taldearekiko konpromezua deuseztatu edo Erregelamendua aldatuko du, beharrezko irizten duenean; halaber, taldeak Udalarekiko konpromezua apurtu ahal izango du, bi alderdiek idatziz eta 3 hilabetetako aurrerapenaz egin beharko dutelarik.

Urtero eta ezarriko diren egunetan, Konpartsaren udal arduraduna eta Konpartsaren zuzeneko arduraduna elkartuko dira, Konpartsako elementuen mantenimendu lanak erabakitzearren.